

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak ingelesaren irakaskuntza sustatuko du Haur eta Lehen Hezkuntzako zikloetan

*Iribas kontseilariak otsailaren 6an hasiko den 2012-2013 ikasturteko eskolaratze-kanpainaren berri eman du gaur*

Martes, 31 de enero de 2012

Nafarroako Gobernuak datorren astelehenean, otsailak 6, 2012-2013 ikasturterako eskolaratze-kanpainari hasiera emango dio Haur eta Lehen Hezkuntzako zikloetarako aurre-matrikulatzeko epea irekiz. Hezkuntzako kontseilari José Iribas Sánchez de Boadok kanpainaren ildo nagusiak aurkeztu ditu gaur, eta azpimarratu du Gobernuak ingelesa sustatuko duela eskolako lehen etapetan.



Eskolaratze-kanpaina "La Educación es futuro" lelopean egingo da, euskaraz "Hezkuntza etorkizuna da" izenarekin eta ingelesez "Education is the future" lelopean. Kanpaina ikastetxe publikoetako 38.000 ikasleri eta kontzertatutako ikastetxeetako 21.700 ikasleri bideratuta dago, eta egun Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egiten ari direnak Foru Erkidegoko 222 ikastetxetan. Aurten, gainera, hezkuntza-sisteman hiru urteko 6.800 haur sartuko diren itxaropena dago.

Iribasek nabarmendu duenez, ikasturte honetako hezkuntzaren berritasun nagusia "ikastetxe publikoetan ingeleseko hezkuntza-aukerari emandako bultzada garrantzitsua da. Datorren ikasturterako, 12 ikastetxe gehiagok ingelesa irakatsiko die beren ikasleei, hau da, orain arte dagoen eskaintzarekin alderatuz, hiru aldiz gehiago". Ikastetxe horiek dira: Iruñean, Mendillorriko El Lago eta San Juan de la Cadena ikastetxe publikoak; Barañaingo Eulza ikastetxe publikoa; eta Lerin, San Adrian, Sartaguda, Monreal, Cortes, Artaxona, Valtierra, Fitero eta Kaparrosoko ikastetxeak.

### Izena aurretik emateko datak

2012-2013 datorren ikasturterako matrikulari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzako zikloetan izena aurretik emateko aldia otsailak 6-martxoak 13 artekoa izango da.

Onartutakoen behin-behineko zerrenda otsailaren 17an jakinaraziko da eta behin betikoa, hil horretako 29an. Ondoren, matrikula-aldi bat irekiko

da ekainaren 22tik 29ra, eta izena aurretik emateko aparteko aldi bat abuztuaren 31tik irailaren 3ra, matrikula-datak irailaren 6a eta 7a izanik. Izena aurretik emateko aparteko epeak hezkuntza-sisteman egiten diren sarrera berrietarako gordeta daude edo bitokia aldatzen den egoerarako.

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bidez, informazio-kanpaina bat burutuko du hedabideetan, eta informazioa eskainiko du bere [webgunean](#). Gainera, interesa duten familiek beren zalantzak Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuko Eskolaratze Arloaren bidez argitu ahal izango dituzte, honako komunikazio-bide hauekin:

- Posta elektronikoa: [nescolar@navarra.es](mailto:nescolar@navarra.es)
- Informazioa eta gurasoentzako aholkularitza: 848 42 66 17
- Izapidetze-gaiak eta ikastetxeetan onartzea: 848 42 69 77
- Eskolaratze Arloko Koordinatzailea: 848 42 32 12
- Fax-a: 848 426987

## **Helburuak eta izena aurretik emateko prozedurak**

Izena aurretik emateko kanpaina Haur eta Lehen Hezkuntzako mailei dagokien eskola-adineko haurrak dituzten familientzat da, eta haren asmoa, "araututako prozedura batekin ikasleen onarpena ordenatzea da, segurtasun juridikoko maila egokia emango duena eta plazak gordetzea bermatuko duena".

Ikasleen onarpena 31/2007 Foru Dekretuak eta 235/2011 Foru Aginduak arautzen ditu era generikoan; 2012-2013 ikasturterako onarpenari dagozkion epeak eta jarraibideak 1/2012 Ebazpenean zehazten dira.

Kontseilariak azaldu duenez, izena aurretik ematea ikastetxe publiko edo kontzertatu batean lehen aldiz sartu nahi duten ikasleekin egiten da. Ez da beharrezkoa inolako onarpen-prozedurarik hezkuntza-maila batetik bestera ikastetxe berean pasatzen diren ikasleentzat, edo atxikitako ikastetxeetatik datozen ikasleen matrikula bermatzeko.

Ikastetxe batean sartzeko eskaera guztiei erantzuteko behar besteko plazarik ez dagoenean, honako alderdi hauek kontuan hartzen dituen baremo bat ezartzen da: familiaren errenta, bizilekuaren hurbiltasuna, anai-arrebak matrikulatuta izatea eskatutako ikastetxean, familia ugariko kide izatea eta ezintasun-motaren bat egotea. Ikasleak eskaera egin duen ikastetxean plazarik lortuko ez balu, haren eskaera ikastetxeek Eskolaratze Batzordeari helaraziko diote kasu bakoitza sakon azter dezan.

## **Unibertsitate aurreko irakaskuntza, zifretan**

Prensaurrekoan zehar, Iribasek 2011-2012 ikasturte honetan zehar unibertsitate aurreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleen datuak eman ditu. Hala, unibertsitateetik kanpoko ikastaroetan Nafarroan eskolatutako ikasleak 102.663 dira (109.216 ikasle 0-3 urte arteko ziklokoak barnean hartuz gero). Kopuru horretatik, 66.364 ikastetxe publikoetan daude eta 36.299 kontzertatutako ikastetxe pribatuetan.

Ikastetxe publikoetan diharduten ikasleak honako era honetan banatuta

daude: Haur Hezkuntzan, 12.982; Lehen Hezkuntzan, 24.943; DBHn, 15.910; Batxilergoetan, 5.685; Lanbide Heziketako Programetan eta Prestakuntza Zikloetan, 6.545; eta Hezkuntza Berezian, 299.

Aldiz, kontzertatutako ikastetxe pribatuetan, 7.426 ikasle matrikulatuta daude Haur Hezkuntzan; 14.337 Lehen Hezkuntzan; 9.475 DBHn; 2.783 Batxilergoetan; 2.105 Lanbide Heziketako Programetan eta Prestakuntza Zikloetan; eta 173 Hezkuntza Berezian.